

BIZKAITARRAI- BIZKAIERAZ*

www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

340n. zenbakia

2008 uztailla-dagonilla



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

E U S K E R A Z A L E A K

2008-2009 IKASTURTEA

BIZKAIERA 41. IKASTAROA
IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

Ordaña: 140 €

Izena emoteko tokia: EUSKERAZALEAK

COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22 - BILBAO

Asierea: URRILLAREN 6'AN

41.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

Horas: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

Curso completo: 140 €

Inscripciones: EUSKERAZALEAK

COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 - TELÉFONO 423 53 22 - BILBAO

Comienzo: 6 DE OCTUBRE

ZUBIRI'TAR SABIN JOAN JAKU

Larogeta zazpi urtekoa zala joan jaku gure artetik Aitaren etxera Zubiri'tar Sabin (G.B.)

Asko goratu bearko geunke gizon au errigintza edo politka-arloan. Ajuriagerra'gaz izan ebazan artu-emonakaz asi eta EA alderdia sortzeko bideetan ekin ebanean.

Asko goratu bearko geunke euskerearen eta euskal-jakintzaren alde lan egiteko beti bere laguntza zabala ta oparotsua emon ebalako.

Ez gitxiago bere sendian egin eban lan baketsu ta maitakorra egin ebalako, illeta eleizkizunean bere illoba batek azaldu euskun lez.

Baiña nik euskera-arlorako Iñaki bere anaiaren ondoan ipiñi nai dot.

Iñaki urteetan izan zan Euskerazaleak Alkartearen Zuzendaria edo Lendakaria eta elebarri ederrak eta ugari idatzi ebazan, olerkiak eta beste arlo askotako idaz-lanak be bai. Eta Iñaki'k beti izan eban Sabin bere anaiarentzat laguntza zabala ta adorea-emoillea.

Eriotzea bat-batekoa izan ei zan, betiko orduan ogetik jagi eta bereala.


Agustindarren Eleizan bere aldez illetea eguerdiko ordu bat eta erdian egin gendun.

Arlo guztietan izango da aundia berak itzi daukun utsunea, baiña aleginduko gara jarraibide oneri jarraitzen.

Eta, amaitzeko, anai bi onei gure eskerrik beroena agertu nai dautsegu emon dauken laguntza ta jarraibideagaitik.

Agur, Zubiri anaiak! Egun aundira arte EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN IZENEAN

OLAZAR'tar MARTIN, LENDAKARIAK



SANTA OSORIA


Ona emen zortzi baseleiza edo ermitaren edestia, lau atxen barruan, BASA'KO Yebra'tik Oturia mendi-gaiñera bidean. Bide au estua eta ezpataz irekia dala dirudi. Orosia Santea erail eban ezpatearen antza dauka dirudi eta bide onek igaroten dau Grial Santua ezkutauta egoan lekua. (Grial Santua beti agertzen da Santuaren izenak urrea gogoratzen dauan lekuan: "Orosia").

Basa'ko Yebra'ra sartu baiño lenago ezkerrera dagoan bidea da asierea. Ezaugarri zuri-beillegi bat dauka asieran bide labur onek. Oturia mendiaren oiñetara eldu baiño lenago, iru baseleiza apal aurkituko

doguz, bidea sakratua dala adierazteko:

L'Augusto, Eskoronillas eta As Arrodiillas ermitak dira. Azkenengo onek aitz aundi bat dauko eta or agiri dira zulo batzuk eta ebagi batzuk. Antxiñakoen ustez, Orosia Santeari samea ebagi eutsonean belaukak egindako ezaugarriak dira.

Bide ori ordu-erdi inguruan egingo dogu eta argi agertuko daukuz Oturia mendiko atxarteak eta or dagozan leizak eta ur-jauziak. orreitan bizi izan ziran euren aldiaren ermitak. Une landaratsua da, sarats negartiak eta arteak barrenean, otarrak, aritzak eta urkiak gorago, dana bake eta dana



Ermitak eta bizilekuak.

atseden-toki. Leoi-itxurako sairen bat eta azur apurtzailleren bat eta errege-arranoren bat ez da peituko

ERMITAK

eta inguruan dan isiltasuna pio-pioak apurtuko dabe.

Kornelio Santuaren eta Leizen basaleizak urrago dagozan neurrian, zaratak ugaritu egingo dira. Eta pizti orreik erpak lurrean sartuta, bide-erdian agertzen diranean, antza emoten dabenez mauritarren bildurrez, zaratea sendoagoa izango da. Ur jauzi bat daukagu baseleizak zaintzen. Oneik alkarren gainean dagozan bizileku bi dira.

Beeko bizilekua Kornelio Deunaren eleiza da eta 1.270 m.'ra dago.

Au Orosia santearen nebea zan. Eta gaineko leizan (1.285 m.'ra) aurkitu ziran Santa Orosia'ren gorpuzkiñak.

Bizileku biok oraintsu izan dira barrizatuak, baiña Blas deunaren bazeleizak (1.310 m.'ra) jauskorrago dagoz. Lekaide onek bere bizitzarik geiena igaro eban leiza baten eta Barbara Santearen baseleiza be (1.390 m.'ra) antxe dago. Onen eriotzea Orosia Santearen antzekoa izan zan.

Orosia Santearen eleizara eldu baiño lenago mendi-gaiñean (1921 m.'ra) O Zoke'ren baseleiza aurkitzen

dogu. Or batzen ziran Basa ibarreko eta Mendi-gaiñeko erriak Orosia Santearen egunean, euren kalbarioa eta baseleizak urregorik urregora igaro-ondoren. Baseleiza oneik XVI eta XVII gizaldietan eregiak dira.

Oturia mendian edestian zear urtean amabi erromeri egin diran lekua izan da. Gaur, beste batzuren artean, Leizak, eta Eskoronillak ospatzen dira, jaunaren igokundearen aurreko eunean, Jaka'ko zelaian ospatzen da Irutasun Deunaren jaiaren aurreko egunean eta ezagunena edo errikoiena Orosia Santearena izaten da. Onek zeaztu dogun bide oso au egiten dau bagillaren 25n. egunean, urtero.

Jaia: Yebra mendietan eres-gailu oneik ikusiko dozuz: Txilibitua, salterio edo aridun tanborilla, eta orreik lagun dirala egiten da Orosia Deunaren dantza aberatsa, dantzariak erromeria egin dabena dirala.

Erromeslariak praka eta txapel loretsua dauke, eta eskuan boj-makillak eta Santuaren kutxeari laguntzen joaten dira. Auxe da, zalantza bagerik, Aragoi-aldean dan erri-jaien agerpenik ederrena: dantza ikusgarriak, inguruko lurra malkarra, giro ezin-obeia. Ermitak eurak baiño balio aundiagokoak dira antxiñakoengandik artu doguzan oitura eder oneik.



Basa'ko Yebra'ku oturia mendian.

Olazar'tar Martin'ek euskeratua.

AITA GUZTIZ SANTUA

Ikaragarria da, egundokoa, Bizkaiko Foru Aldundiko Agiritegian dagoan ondasun dokumentala. Gure errialdearen azkenengo 700 urteko istoria gordetan dabe an. Ikerlarienezako aaleko iturri emonkorra. Agiri moltsoa eskuz idatzita dago, geien baten. XX. gizaldirik beerakoa, batez be. Idatziok eskribauak, abadeak eta udal edo aldundiko idazkariak dagoz idatzita, zatirik andi-andianean. Agiriok, baina, ia %100ean espainolez dagoz, lantzean batzuk frantsesez eta eskuetako atzamarrakaz kontau leitekezan bakan batzuk euskeraz. Au be ikaragarria, gero, kontuan artuten bada, XX. gizaldia asi baino leenagotxura arte, ia

bizkaitarrik geienak euskaldun berbeta bakardunak izan dirana. Onetarako argibidea, agiri askotan aitatuten dan euskeraz gauzak barrian esan bear izana (danak ulertu eien!). Asko da, gero, bearrizan ori egon, bearrizana sarri be sarri agoz estaldu bear, eta, alandabe, agoz euskeraz esandakoaren testu idatzirik inon be ez agertutea!

Beste zeozertan ikertuten gengozala, braust!, ezustean, beerago dakargun testu laburtxua agertu jakun begien aurrean. Leenengo-leenengoan, gu zurtz eginda. Gero, pozarren, zelango ez!

Antza, Pio IX. Aita Santuari, berak Gernikako Batzarlekuko Foru Eleizeari egindako mesede eta emondako graziakaitik, eskerrona erakutsi gurean, mezua eldu eragin gura izan eutsoen Bizkaiko Batzar Nagusietako kideak. Orretarako mozinoa aurkeztu eben 1864. urteko garagarrilaren 24an, eta urrengo egunean, Gernikan bertan batzartuta, onartu egin eben. Aita Santuari eskerrak emoteko mezua eroateko, orretarako beren-beregi, aukuratutako mezularia bialdu bear ebela be onartu eben. Alan bada, Antonio Maria Murua jauna aukeratu eben zeregin orretarako. Gizon arek gogotsu onartu eban eskabidea, baina beraren osasun makala zala-eta, bein eta barrian atzeratu bear izan eban Erromarako joan-etorria. Azkenean, 1866ko bagilaren 23an, eguerdiko 12.30etan bete eban aspaldian agindutakoa. Aita Santuak, ordainean, bedeinkatu ebazan Bizkaiko Foru Aldundia, aren ordezkariak eta bizkaitar guztiak. Urte beratako garagarrilaren 12an, Erromatik etxera etorrita, bertan jazotako guztiaren ganean jakitun imini ebazan Foru Batzarretako kideak aitatutako Murua jaun arek.

Sasoi atan, Espainia aldean, euskal lege zaarren aurkako giroa bizi-bizi egoan. Sánchez Silva espainiar senatari

jaunak foruen aurkako erruki bako berbaldia egin eban 1864. urteko bagilaren 13, 14 eta 15ean. Arieri erantzunez, Pedro Egaña Euskalerriko senatari arabarrak ile beratako 15, 16 eta 17an berbaldi sutsu eta luzea egin eban euskal foruen alde Espainiako senatuan. Baita Francisco Barro-eta Aldamar senatari gipuzkoarrak be, beraren aldetik, berea egin eban sutsu eta gogor.

Aita Santuari bialdutako mezu atan, bertan alan irakurri leiteken lez, berak Foru Eleizeari graziak emoteagaitik eskerrona erakusteko baino, mezuan foruen aldeko apologia eginda, geiago emoten dau foruen arerioakandiko babesaren bila joan zirala Erromara, mezulari eta guzti bialduta.

Bide batez, esan daigun, Pio IX Aita Santuak ekonomian oinarritutako liberalismo, sozialismo eta modernismoaren aurka eukan eritxia argi lotu zala 1864. urteko abenduaren 8an agiriko egin ebazan “Quanta cura” entziklikan eta “Syllabus errorum” dalako katalogoan.

Guk aurkitutako testu ori dakarren agiriak 1865eko zemendiaren 10 eguna dau agiriko, testua onartu eta urte bete garrenekoa, atan be. Aor, bada, testua:

AITA GUZTIZ SANTUA:

“Batuta gagozala gueure foru usadijo eta ecandu onac irudituten dituzan arecharen azpijan, jaquin dogu esquer on, eta pozezco negar malcuacaz, celaco gracijac eguin deutzazuzan, gure asaba onac arech onen guerizpian Jaungoicuaren amaren onzari (?) jaso eben elessa oni, escatuteco bertan cerubari, emon daguigula emen batuten garianoi biar dogun fedeco eta jaquiturijaco espirituba.

Egun guztijetan, gueure lanac asitera guazanian gueure erri onraduaren oneraco, auzpaztuten garianian Ama Doncella garbi Vizcaico Patroniaren altariaren aurrian, urteten dabe gure Vijotzetatic, eta eguiten ditugu gueure ezpanacaz escari oneec.

Erregutu eguizu ó Marija, Pedroren ondorengo naibaguez inguratua daganagaitic! Gorde egizuz euscaldunen foruac, bada eurac guri quenduteco alegiñac gustijac eguiten ditube iracatsi guzurrezco ta gaistaquerijac! Estaldu eguizu ceure mantuagaz gure Erreguiña eta Andria, ain dan fediarri ta zucentasunari gure errijan iraun eraguiten deutzana.

Jaungoicuaren Amac lagunduten deuscu! Artuten dozunian, ó Aita guztiz Santua, gure vijotzen barru barrutic aguertuten dogun ta bialduten deutzugun gueure zuganaco eraspén ta gurarijen barri ta albistia, arren zuc bere lagundu eguiguzu Virgina Marijac lagunduten deuscun leguez, bialduten deutsezula zure benedeziño santuba gure foru maiteen arechari, eta bere guerizpian baturic dagan errijari.

Guernicaco arecharen aspijan, Garagarrillaren ogueta irugarren egunian, milla zortzireun eta irurogueta laugarren urtian.”

(Bizkaiko Foru Aldundiaren Agiritegia: J-01349/001 - Carpeta General de Culto y Clero. Bienio 1862-1864.)

Iñaki Prieto

NUN AGOZE'ENE LAGUNOK

(5N. SARIA)

Nun agoi, mundu osoak, danok, ezagutu izan augu, Kantinflas, izengoitiarekin artista aundi ori? nun? Par-katuko eik nire ausardia, itanoz egitearren, baina niretzat neure aideko bat azelakoan artuten aut.

Zergaitik joan intzan ain arin guretik?

Zenbat ordu ta mementu onak, barreikarriak eurok, alaiak, igaro arazi eunskun ik, ire jantzakaz eta kantarekin edota pasadizoarekin! Zenbat baiña? Ik parte artutako filme aietan irrika bat eta begitazune baita ere biztuz alako indar erakarle bategaz erritarron artian ire antzezpenak ikusteko naian, elduentzat batipat, zeren eleizako atietan idatzita umiarentzat debekauta gendualako ire lana ikustea, ezalako komenigarri praka motxadunentzat ire kontraesanak zentzun bikoiz esandakoagaz, arek guk ikasi egitea.

Parebagaboa zan ik sartu izate euskuzan pozezko egon ezina gure barrenetan alako urte gogorretan, dana zala pekatu, baita arnasa artzea ere.

Ezin aditu ezer ire izketa berezian, baina beren esan naia ulertu bai.

Ire esakerak ez euken ondarrrik, danak eukezan beren gatza ta piperra, ta ori gitxi bazan, ire ibilkerak eperdi txuntxurrek egaletara albailduz lotzabakotxuenak egiten, dan danari zaar zein gazte izan, andrazko ala gizonezkoai pozez beterik izten euntsen ta arritua geratze ginan beti ire urtekerarekin, belarriak adi-adi zer entzungo, barre zantzoak nagusitu orduko zinemaretoan filme ikusleen artian.

Aberatz et andikien aurka, politikoen, abokatuen, sasijakintzuen, txirriporroen..., orren guztien kontra ta erasoka beti, eta apropozko ezizenak ipiniz bakoitzari ganera, gu danon pozerako, ta zelako apaizketak eukite euazan eurokin, baina!

Eskola bagakoen alde beti, nezkatilakin pipermindu-txue zaplankerienak esaten..., ezeuan erabilten egundo modu txarrik, ez da madarikazio edo desegokiko itzik ere, burruka ta erriertarik ere, panpinetan ez bazan. Apal beti, gogorra ta latza arerioarekin, Jainkoaren esan onetarikoa, atzo zaarren zaindari, gaztetxoekin aitabitxi, ziria sartzeko prest erdi lo egoanari, lagunen lagun, miin punta zorrotza edozeineri estenkadia sartzeko gertu...

Zenbat ikasketa gogoratzeko! Zenbat esaldi etorki-zunerako! Demontrezadutxue batzuetan pipermin apur

bat botaz, dan dana eure izketa berezian, arin, kinukaz lagunduta... baldarra batzuetan ta petrala geienetan.

Imitatzaille asko ta asko euki izan dozak, ire arrakasta lortu naian, batzuk besteak baino zuurragoak izanez, baina ik eukan kaleetan ikasitako jakituria, jainutazuna, ori gitxiri ikus eikioen. Leenbizikoa, osoena ta oberena. Egun onean zile ebagitakoa izan intzan i, bai orixe!

Beti arazuetan sartunda, baina sasitze guztietatik onik ateratze intzan, grazi berezi bategaz ikutua engoalako. Ire irudi berezia, ire jaza, prakak ea jausiaz epermokorretatik beera, baina inoiz ez aian olakorik gertau izan, naiz eta danok egoten gintzala olako egoera bati noiz izango itxaroten. Euriaren emendioz, mantar zati bategaz sorburu batetik beera soinekututa, lau ule sudurpearen egaletan, begi zorrotzak adarra jo gurekoak, jugoi zaar bat jantzita eta kapela txiker bat buru ganian... ori zolan ire irudimena, itxura baldarra, gorazarre txiki bat eginez ire iritarrei kale gorritan emon bear izaten ebenari euren bizitza aterpe barik gaueko orduetan.

Egundo berba bi artez esateko gauza ez azana izan ta eurek atzekoz aurrez ta inork aituteko, ezda ik ere alakoak entzuterakoetan, ire miinegaz estropozuka. Arin asi ta nekez amaitu.

Zigarro kondo bateri amatetan dagoeka, tenga ta tengaka ez daukon keerik atara naian..., bizitza dan ogi gogorrari ire agin zorrotzak sartzeko prest; ezeren bildur bagokoa, kalekoa, eskola bagakoa, adoretzu, betatsu, txirene, zaplandari, alpertxu lanerako kemen gitixkoa, trebezi bako baldarra, langileko arazoetan lorrinkerri batzuk noiz beinka eginez, ganora barik amaituz ezer konpontzeko patxaraz gauza ez intzala, baina biotz aundi aundikoa.

Kantuetarako ire grazi-modua, zelan jakitera emon inori, imitau ezik; ire arimia erakutsiz, ire erara, ire ez jakin baina badakiala erakutsi naian ire lagunai. Txori ozo bat, baina maitagarria emoten endun ik. I izan intzan bai zelebrea, izatekotan be. Azelako falzeteak, baina! Azelakoak!

Ire jatorria aurpegian eukan idatzita, Moctezumaren Mexikoko indioen endetako odoletakoa intzan ezpai bari, ta oore aundiz.

Ta, zer esan arek dantzako moduek inoiz inori ikusi ez iakozan legexekoak egiten, barregarrik, sexi sexiak, ondo neurtutakoak, negarrak eta txixek

danak batera eragitekoak ikusleari. Zer intzan i baina! Txaparrotxua baina inork geiago egitekorik ez egoan, ezta urrutnetik ere. Arlo orretan ire nurrekorik ez egoan mundu zabalean.

Ire ezpan barrenekin egindako ziñuek eta bekainekin gora ta beerak ire guztoko neskatxeri jakin arazteko ire asmoak eurekin, ez eben bear izaten itzik, artista bene benetakoa intzalako.

Sarri baiño sarriagotan, ire jakintazuna erakutsi naian ta izketak gauzak esaterakoan, eurok azaldu egin gurenen, naaste borraztean ta ankaraz gora ipinte euazan, ik ere aditu ezer ezda zer asi intzan aurretian esaten, dan dana lorrinduz, entzuleak agoa zabalik eta beren buruari azkarka itsiz, tirlitorloka mintza gure dabilenen bati errezago izango zana aituten. Zenbatetan aipatzen joguzan lagun artean ire esakerak oraindik.

Gogoratzen naiz alako bategaz: I polizi lanetan (777), Auto istripu bat kalean. Jende piloia zauritua zelan aurkitzen dan ikusi naian. Batzarra irudien. I danen erdian egalak aizetu naian eta benaz benazki esaten: Bazterraratu, bazterreratu zaiteze jaunok, bazterreratu zaiteze bazterrera...!, eta abar eta abar orrelakoak.

Goi mailako artista bat intzan i, ainbeste filmetan izarra, ta alako baoitzetan orrenbeste lanbide antzeztuz: orain maixu, alfabetak bagakoa gero, edo sendagile, egazkilari, abade, kaleetako garbitzaile, polizi, Santxo Panza, Pikaporte, espatari trebea, extra..., abar eta abar, zenbat baina. Hollywood'en ere, egonda intzan bai, buruz buru, ukunduz ukundo lanean ango entzute aundiko artistakin batera euren lantegi izugarrizkoetan, ta ik laga euntsen ekin bikainaren ondoan, aaztu baga euren guztien gogotan oraindik dabe euki gaur egun ere.

Zergaitik alde euan ik ain goiz gure ondolik? An goian, ire antxinekoekin batera agoen landatzarretan, izan adi zorionsu opa deuaigu biotzez, gure ederrak egin ta pozez senti araztearren gure barrenetan, areik domeka arratsaldeko noizik beinekoak ta ongi etorritako emanaldietan ire ateramentu ta ekio barreikarriekin.

Zelakoa izan intzan jakinda, egingo nuke, or agoen ondo irabazitako lekuan be, ireak egiten ariko aizela, arime ontsu guztien artean euren danen pozerako.

Emen gaudenok oraindik, ire bear izanean aurkitzen gara danok. Urtenkera arek, napinak, soinuek, dantzak, esamoldeak, artazuritzentako kontuak, txakur amesetak..., eguneroko ogia jateko legez bear doguz orreik. Zure utza gure artian nabarmen artunda gauz gu, jaio intzanlako grazi berezi bategaz gendea alaitzeko ire eginkizun trebearekin eta.

Gure belaunaldikoak ez dogu eskatzen dominaren bat iretzat, ezda oroikarririk ire irudiarekin, zeren gure biotzetan gordeta daukagulako ori.

Dana dala, ik eunkazan merezimenduagatik dana izango aut gitxi. Guk beraz, ire gomutaz ataltxu onetan ire gizatasuna goraiapatutzea izan da, gure asmoa omenal-ditxo baten antzera, gure begirunea erakutsiz, etxekoren bat guretik betirako aldetze dabenian bezalaxe biotz barrenian lekutxu bat eginez.

Jainkoak gorde agiala beren aldamenean amaier bagako bizitzan gugaitik mundu ontan ik egin euskuazan on guztiagaitik, guk ezin izango dogulako gure bitiza enperaruan ordaindu, gure otoitz bero eta apalenagaz edo gure asmo onenekin iregaitik ez bada. Ondo irabazita daukat oore ori eta.

Ire izena aipatzerakoan, umore ona ta irriparra sortu dagiela gure arimetan!

Azkenez, bidebatez ta aaztu barik, emaiotsezak goraintzi beroenak iralako lanetan arituten zirenei gure bizitza arrunta eta bardintsua alaitu eraginez: Marx anaiak, Txarlot, Laurel eta Hardy, Jaimito, Ti-Tan... orrek guztiak inore zorrik bagakoak izan direnentzat ere, gure oroimen zintzoena eurogaitik. Agur bada Mario Moreno Jauna, agur ta erdi.

Alberto Narbaiza Etxeandia

OARRA

Irakurleren batek nai ba'dau Aita
Santi'ren DVD edo
Umandi'ren gogo-iztegiaren CD'a,
eskatu begi "Euskerazaleak Alkarte"ra
Colón de Larreategi 14, 2.a, eskoia -
48001 Bilbao
edo 94 423 53 22 - 94 475 96 63
(Karme)

XABIERRERAKO IBILALDIA

Negu azkenean Nafarroako bide guztiak Xabierre-
eramaten dute. Milaka gizon eta emakume joaten dira
bederatzu urreneko egunetan Sandu andien sorterrira bisita-
tazera. Batzuk oinez, bertze batzuk ibilgailuetan asmo
berdinekin, Sandu ibiltarien ondora. Aren gogoetak eta
asmoak berritazera. Antxe Txina zarra begi aurrean zuela
itzeli zen mutil nafarra, ez bait zuen bere biotzeko su
garretan mugarik ezagutu. Xabierren aurpegia erri guzti-
entzat elkartasun muga gabekoaren amets argi bat duela
dirudi, Leyreko mendi zuriak ematen duten antzera.

Argi eder orren dizdira artean eltzen da Xabier ainber-
tze maite izan zituen eguzkialdeko Txina andia, Japon eta
India. Oiu ori entzungo zer elkar maitatzeko, laguntzeko,
muga gabeko elkartasunerako deituz.

Nafarroako toki guzietatik etorritakoak ziren errome-
sak, milaka bildu zituen gatzeluak. Gurutze Gorriak 451
gizonezko eta 393 emakume zaindu zituen.

Aurtengo martxoaren 2 eta 9an egin dira Xabierre-
ibilaldiak. Iruñeko artzapezpikuak lau izkuntzetan eman
zuen ongi etorria, (gaztelera, euskara, ingelera eta frantze-
sa), Iru aldiz mintzatu zen euskaraz, “saiatzen naiz ikasten
naiz zaila izan” eta bertze batzuen artean zion; erromesak
eliza baten irudia zirela, besarkada bat ematen ziela gatzelu
azpian zeudenei, eta gero eta geiago maitatzen zituela nafa-
rrak. “Zoriontsu izan nai baduzue” zion “bakoitzak duzuen
bokazioari jarraitu bear diozue”. Baita ere Xabierrengan-
dik bortz ikasgai ikasi daitezkeela. Bizia, Jaungoikoaren
eskuetan jarri bear dela eta irakatsi izugla zein den jarraitu
bear den bidea ori lortzeko; otoitza egin bear dela mundu
paketsu bat izateko. Bigarrena, jende guztiok gai garela
santutasunera eltzeko. Irugarrena, Xabierrek edaten zuen
sakramentuetako iturrietatik edan baar dela. Laugarrena,
eliza maitatzea ama balitzake bezala. Bostgarrena, jastizia
sustatu bear dela, sanduak egin zuen bezala.

Ona
emen Xabierren omenez norbaitek egindako bertso poli-
tak:

Gora, gora Saindua andia
Otoi begira Euskal herria

Aitaz garaztarra, amaz baztandarra
Euskaldun garbia zen eta Nafartarra.

Artze onekoa, Parisera joanik
Irakasle andi jarri zen gazterik.

Mundu lausenguz, zuen lilurat
Enekok berriz, jaunari biurtu

Apezturik joanik, toki basetara
Miliun pagano, an bataiatzerat

Arimen ondotik, arimak zeraman
Gabaz ordu luzez, zegoen otoitzetan

Itsas lurra meneko zituen
Erial sendatzen, ilek ere pizten

Ez da inor izan Desusen geroztik
Xabierren aala, agertu duenik

S. Franzizko saindu ain goresgarria
Benedika ezazu Euskal-Erria.

Xole Erbiti

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €.

Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!



Armentiako Erdi Aroko hilerria.

ARMENTIA'REN EZKUTUKIAK

Araba'ko adiskide batzuk “GEU” aldizkaria bialtzen dauste. Eskerrik asko.

Aurtengo aprillari dagokion zenbakian Armentia'ri buruz idaz-lan argigarri bat agertu da. Ez dauz aztertzen eleizearen barruan dagozan erti-balio aundiko ikusgaiak, esaterako atzeko aldean dagozan age-buruak, erromanikuan ospetsuenetarikoak. Ingurua eta arkeoloji-aldetik begiratuta, aztertzen dau, zeatz eta egokiro.

ARMENTIA

1025n. urtean Donemiliane'ko “reja” edo arautegian (regula) agertzen da lenengoz erri-izen au “Armenter” lez.. Izen onek abereen lekua esan gura dau, latinez “Armentum” da jatorria. Eta 30 etxe daukaz. Gaur olako etxe bat geratzen da, Gazaeta edo gatzaren lekua deritxona.

BIDE-KURUTZEA

Aurkitu diran aztarnak erdi-aroa baiño zarragoak dira, erromatarren aldiko estela bat be bai. Antxe egiten eben bat Astorga-Burdeos kaltzada ospetsuak eta beste bide-zidor batzuk eta erdi-aroan San Adrain tuneletik etorren Done-Jakue bidearen geltokia egoan bertan.

GOTZAINDEGIA TA ELEIZEA

IX mendetik 1087 urtera gotzain-erria izan zan, Kalaorra arabiarren menpean egoan artean, eta izan ziran bertan ainbat gotzain, geienak ezagunak, baiña 1087n. urte orretan Fortunio gotzaiña il zan eta arrezkero barriro geratu zan Kalagurri'ren menpean.

200 urte orreitan Araba, Bizkaia'ren zati aundi bat eta Gipuzkoa'ren zati batzuk ziran eleizbarrutia. D.Vivere izena eban gotzain bat etorri zan Mungia'ra eleiza bat sagartzen. D.Vivere ori orduan ospetsuan zan Okoizta (Acosta)'ko monastegiko abataren anaia zan eta monastegi oneri Trebiño'n ainbat lur, sagardi, errota eleiza ta abar emon eutsozan.

Gero Kolejiata biurtu zan Armentia.

1.-SAKRARIOA

Eleizearen ingurua arakatu dabe Azkarate'ren gidaritzapean, edestia ezagutzeko eta ondoren jakingarriak batu dabez. Baiña, zori txarrez, diruaren urritasuna dala-ta, amaitu bagerik geratu da arkeoloji-billaketa ori. Katedral zarra be ez dabe aurkitu. Bai beste jakingarri batzuk.

1.- SAKRARIOA

Eleizearen inguruan lerro biribil batek inguratzen dauan lurra dago. Olakoak ba-dagoz Europa'n, baiña au Kataluña'koaren antzekoa da eta erdi-ugarte osoan bakarra.

Sakrario deritxo toki orreri eta toki santua da. Orra ezin zeitekean sartu gogorkeriz iñor be.

Jarraituz, olako beste lerro biribil bat aurkitu dabe eta irugarren arlo bat biribilla ez dana. Zer ete da?

2.- ILLERRI ARRIGARRIA

Emen be, beste toki askotan lez,eleizearen alboan illerri edo nekropolis bat dago. Gorpuak XII-XIV gizaldietakoak dira.Guiztiz 150.

Gorpu batzuk trepanaziñoa (buru-azurra zulatzea) eginda agiri dira. 15 gorpu dira zauri larriak izan eta gero eba-kuntza ori eginda dagozenak eta bat izan ezik besteak osatu egin ziran. Orrek osagilletzan aurrerapen aundia egoala agertzen dau.

3.- MARITURRI

Eleizatik 200-bat metrora dago iturri au. Geltoki-erritxu bat da eta erromatarren kaltzada baten ondakiñak daukaz. Posta-geltokia zan eta inguruan idien astarnak eta ainbat etxe dagoz, terma-antzeko bat be bai, eta altare bat jaikoren bateri eskiña eta bei-etxalde bat. Ortik artua izan leiteke armentum edo Armentia izena. Iturri bat dago Mariturri deritxona. Olako izenak beste toki askotan be aurkitu dira (Maiturri, Betolaza'n; Andra-iturri, Agurain'en; sorgin-iturri Etxebarri Ibiña'n... Alboko lur sail batek Andre-solo dau izena.



Mariturri.

OLAZAR'tar Martin'ek

“KENOSIS” MUNDUGINTZAN

LIBURU IRAKURGARRI BAT

Oiraintxe diardut liburu irakurgarri bat irakurten. Arthur Peacocke idazlearena da eta “Los caminos de la ciencia hacia Dios” da bere idazpurua.

Liburu-dendan liburu au eskatu nebanean neukan nire egarria ez zan liburu onek kentzekoa. Nik mundu eder eta aundi bateri begirakada bat egitea nai neban, bide orretatik Egillearengana eltzeko. Lenago irakurri neban “A Dios por la ciencia” liburuaren antzeko bat nai neban.

Baiña ez da ori liburu onen bidea, au mundugintzaren barruan dagoan filosofiaren bidetik doa.

Ez da beti ulerterreza, baiña bai beti interesgarria.

JAINKOAK SUFRITZEN ETE DAU?

Liburu onetan aurkitu dodan gai bat azaltzera noa: Munduan diran zoritxarrak, neke-miñak eta ondamendiak ikusita, Egilleak min-artzen edo sufritzen ete dau? Egiten ete dau Egilleak negarrik Txina'ko lur-ikareak erail dauzan 80 000 errubako gizakiri begira?

Guk gure antxiñako jakituriagaz, ezetz esango gendun, baiña erantzun egokia baietza da. Bibliak agertzen daukun Itun Zaarreko Jainkoak be nekeak artzen dauz, asarretu be egiten da, zigortu be egiten dau...

ZER-ZER DAN: kénosis.

Baiña asi gaitezan gure berben adierazpena azaltzen, batez be, mundugintza zer dan ulertzen dogun ezkerero, azaldu daigun “kénosis” zer dan. Au ulertu-bearra daukagu, idazleak esan gura daukuna geuganatu nai ba'dogu.

Berbeak berak gerkeraz “utsitutea” esan nai dau eta San Paulo'k Kristo'ri ezarten dautso berba au arako Filipostarrak egindako gutunean au diñoanean:

“Kristo Jesus'ek, Jainkoaren izaera berekoa izanik, ez eutson gogor eutsi Jainkoarekin bardin izateari; bestela baizik, bereaz ustu egin zan, morroi-itxura artuz eta beste dozein bezela azalduz”.

Ori da Kristo'ren “kénosis”, bere jainkotasunaz utsitu egin zan”, ori egin bagerik eziña zalako gizakiak salbatzea.

Antzera Mundugilleak be, bere jainkotasuna utsitu egin bear izan eban eta egindako izakien antzera jokatu. Orrelan baiño ezin zeitekean egindako izakien ardurarik artu eta ez onein nekeak Beragan jasan, sufridu be. Ara Peacocke idazlearen berbak, 146n. orrialdean:

“Podemos aventurarnos a afirmar que el coste para Dios radica en una continua autolimitación y un continuo anonadamiento, que constituyen tanto la acción creadora divina como la voluntaria vulnerabilidad de Dios en los procesos que El mismo crea con vistas a lograr un objetivo primordial: la emergencia de personas libres. Por consiguiente, la creación conlleva para Dios lo que hemos llamado “riesgo” que El arrostra amorosa y voluntariamente -y con sufrimiento- al objeto de posibilitar el bien mayor que representa la constitución, dentro del mundo creado, de una humanidad libremente receptiva”.

ONDORENAK

1.- Jainko mundugilleak bere eskuak lotuta daukoz “kenosis” ori onartu daualako, munduko zori txarrak eta ondamendiak alboratzeko. Jainkoak ezindau or ezer egin, kurutzeko Kristo'k, Jainkoa izanik, bere burua salbau ezin izan eban antzera.

2.- Jainkoak negar egiten dau munduan negarrez dagozenakaz: ume gudariakaz, gosez ilten diranakaz, “iesa” edo “sida” daukenakaz...

3.- Jainkoak asarre-antzeko bat dauko barruan olako bearkizuna daukeanai gure laguntza emoten ez dautsegulako.

4.- Jainkoa samintasyunez dago Txina'n lur-ikareak erail dauzan 80 000 errubako gizakiak begira.

5.- Jainkoa munduta dago bere aginduak alboratu eta pekatua egiten dogunean.

6.- Jainkoa pozik dago gu Beragana biurtzen garanean eta seme-alaben maitasuna agertzen dautsagfunean. Orrelan obeto olertzen da San Paulo'k diñoskuna: “Espiritua ez egizuen tristetu”.

OLAZAR'tar Martin'ek

IPUIN SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKARAZALEAK ALKARTEA'K, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAIN-TZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2^a eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoan erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterillan.
- Sariak bost izango dira:

1. ^a 300,50 euro	4. ^a 120,20 euro
2. ^a 240,40 euro	5. ^a 60,10 euro
3. ^a 180,30 euro	
- Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
- Epea azillaren azkenera arte.



EUSKERAZALEAK

15.-MINGORRIA ERRIA ABILA'N



Gaztela'ko lur zabal eta legorretan ara ta ona ibiltzen ba'zara, euskaldunentzat arrigarriak diran gauzak aurkituko dozuz.

Olako bat izan zan niretzat Abila'ko lurretan aurkitu neban erri baten izena. Mingorria.

Nondik eta zergaitik izen ori?

Billaketa egin neban eta ara aurkitu neban erantzuna: Eskorial'eko Lorentzo Deunaren monastegia egiteko II Felipe erregeak egitasmoa idatzi ebanean, agindu au emon eban: Argiñak euskaldunak izan daitezela.

Eta olantxe egin zan, argin euskaldunak eroan ebezan.

Argin orreik lenengo arrobi bat bear eben eta Abila'ko erritxu baten aurkitu eben. Antxe artu eben euren bizilekua argin euskaldun askok.

Egunak joan, egunak etorri, elgorria edo antzekoa zan gaiso bat sartu zan euren artera eta gaiso orreri "mingorria" esaten eutsoen.

Inguruko errietan entzun eben ori eta argin euskaldun areik bizi ziran tokiari izena ezarri eutsoen, gaur-arte eta betiko: Mingorria.

OLAZAR'tar Martin'ek

16.- ESPARTERO TA LEGE ZARRAK

España ta Euskalerrria naikoa ondo konpondu ziran alkarregaz eta baterako lan asko eta ederrak egin ebezan, arik eta euren arteko akordua apurtu zan arte: Euskaldunak euken Lege Zarra eta ortik aterata euken euren buruen jabetza zapuztu zan arte.

Baiña España Lege Zarrak zapaltzen asi zanean, edo gaur esaten daben lez, foruak kendu ebazenean, orduan sortu zan gaur-arte bizi dagon euskaldunen arazoa.

Euskaldunen lenengo erantzuna Karlostarren gudak izan ziran, baiña arazoa argien agertzen dauskuna Bergara'ko Besarkadea da.

Zumalakarregi il zanean, an egoan karlostarren ordezkari euskalduna ez zan Maroto jauna eta Liberalen izenean Espartero gudalburua.

Akordu batera eldu ziran: Euskaldunak (eta karlostarrak) izkilluak emongo eutseezan, baiña liberalak euren



berbea emoten eben lege zarrak zaintzeko.

Espartero'k eta onen jarraitzaileak euren espateagaz Lege Zarra zaintzeko berbea emon eben.

Baiña Espartero'k ez eban berba ori bete eta laster asi zan Lege Zarrak kentzen, España'ko Lege Negusiaren aurka egozala atxakitzat artuta. Azkenean guzti-guztiak kendu ebezan eta ez zan ezer be geratu, mesedegarri izan jakun Ekonomi-Ituna baiño. Eta arrezkero ez dago bakerik.

Euskal Arazoaren urtenbide bakarra zein dan? Naikoa argi dago: Bere Lege Zarren erara bizi izaten itzi.

Baiña olako zauri zarrak osatzea ez da gauza erreza izaten.

OLAZAR'tar Martin'ek

ARALARKO AINGERUA

Aurten ere eldu zaigu Iruñera San Migel Angerua. Udaberri aldera asten ditu ibilaldik Nafarroan zear. Aitzanako oitura.

Gaztetan izaba Martinari galdetzen nion. Emakume ez zen inoiz erderaz mintzatu. Euskaltasuna zañetatik zetorkion. Zu, Martina Ilarregiko elizan sandu irudietatik zein da gein geiena gustatzen zaizuna?

Galdetzen nion.

Amabirgiñaren irudia polita da eta soinekoa ere oso polita du, ditu, erantzuten zidan.-

– Eta San Migel?, au bait da erriko patroia.

– “Ez, aldarean dagona ezpata dauka, neri gustatzen zait urrezko aingerua buruan gurutza daramanak”. Au aipatzen dut, urteak geroago On Jose Migel de Barandiaraneri aditu niolako euskaldunon San Migel irudia gurutzearena zela, ez ezpatarena. Ni arriturik gelditu nintzan, pentsatuz gure Martinak, olako berriek nola zekizkien...

Ala ba, irudiakin jarraituz ama zenak San Migelen irudia eltzerakoan erraten zigun, “Gaur eldu da Aingeru”. Jartzen zizkigun soineko politenak eta berrienak eta joaten giñen erriko Gurutz atzekoaldetik gure kasuan Xuarbeko mugaraiño. Antxe, agertzen zen Aingerua zaldi baten gainean zeramatela, bertze guziek oiñez. Orduan, agurtzen genituen alboko erriko jendeek, eta andik asi eta joaten giñen kantari irudiaren gibeletik Ilarregiraño. Zaldia zeraman gizona berriz, joaten zen orduan atzetik gure erriraño. Iris-terakoan, ezkilak jotzen zuten bitartean agurtzen zuen erria eta lurraldeak bedeikatu lau aldetara..

Orai ere gauza berdintsua izaten da Iruñean egiten dena. Takonera lorategira iristen da, ezkilak joka dituela. Antxe agertzen da Miserikordiko Aingerua ongi etorria Aralarkoari ematera Bitartean, txistulariak ere “Agur Jaunak” jotzen diote, eta ondotik denak prozesioan San Nicolás elizeraino. Antxe, jendeek besarkasatzen duten bitartean abesten dute aingerua eta biaramonean asten da iri guziko elizak eta tokiak bisitatzen. Baina garrantzi andia artzen du Nafarroako Jaurettxera eltzen denean. Arrera goigarria. Atari nagusian espero du Gobernu osoak, gero bibolin soinuen artean igotzen da kaperara, antxe meza entzuten da eta ondotik euskaraz abesten den bitartean adoratzera ematen da eta agurtu arte musika ori jotzen dutelarik. Agur, urrengo urte arte...

Iruñeko Udaletxean ere galazko soiñekin artzen dute

Eta ola jarraitzen du zortzi egun osoak irudi ederra Iruñean, Azken bisita ilerrira izaten da, gero Miluzeko zubia pasatuz errietako bideak artzen ditu. Uste dut kanta auek oso ezagunak izanen dituzuela, ala ere jartzen dizkizuet oroi arazteko.

EL, MIKEL,
MIKEL GUREA,
ZAIZU, GORDE
EUSKAL ERRIA.

1

Goazen euskaldunak
Aralarrera
Mikel Aingerua
Agur egitera.

2

Aralar mendira
Igo gaitezen
Mikel ikusteaz
Ez gera aspertzen.

3

Aitortu dezagun
Bere aurrean
Naiko dugula il
Geren fedean.

4

Euskal Erri hederán
Giñaden jaio
Gure siñislmena
Bizirik dago.

5

Errekaredoren
Fede garbia
Sekulan gezurrez
Nasi ez dedilla

6

Aurrekoetatik
Dugu Iasi
Oso ziñez eusten
Lege onari.

7

Egiak, zigozkan
Euskal Erriari
Probetxu, mesede
Asko ekarri.

8

Eztugu nai autsi
Kriston Legea
Ez dotriña gaistoz
Gaur nastuzea.

9

Osorik osoan
Guztia gordez
Eztezagun saldu
Gezurren ordez.

10

Alperrik Satanas
Leiatuko da.
Ezdugu galduko
Sinismen Ona.

11

Euskaldunak pobre
Izan gindezke;
Euskaldunik ezta
Federik gabe.

12

Aralartik Mikel
Begira dago
Luzbelik parterik
Eztu izango.

AZKEN AGURRA

1

Agur Mikel Aingeru
Agintari andia
Izan beti tronutzat
Aralar mendia.

2

Aditu euskaldunen
Itz miñez beteak
Bota Euskal Erritik
Deabruen jendeak.

3

Bakarrikan nai dudu
Gure Jangoikoa
Fede bat, Bataio bat
Biotz bat osoa.

Atera zazu Migel
Ezpata zorrotza
Zur etsaien sugea
Utzitako ilotza

Basaos Aralarra
Aingeru Sandua
Zerua iristeko
Eman iguzu eskua.



30.-ROMULUS ETA REMUS (ERROMA)

Erroma izango zan munduko uririk ospetsuena, gizaldi askotan beintzak, bai aginterriaren buru lez eta bai Eleiza katolikuaren ardatz eta gidari lez.

Eneas'en ondorengoai zor dautse izatea Erroma'k. Onen birloba zan Rea Silbi'k seme bikiak izan ebazan Marte jainkoarengandik: Romulus eta Remus. Eta biatarik batek, Romulus'en sortu eba erroma.

Rea'ri erreg-eskubideak kendu eutsuezan, baiña erri zeia beragaz eukan. Agintari aundikiak eukan Rea'ren bildurra eta erri zeia aurka jagi ez zedin, emakumea eta seme bikiak Tiber ibaian itotea erabagi eben.

Baiña bikien seaskatzua ibai-ertzeko kañabera artean gelditu zan eta antxe aurkitu ebazan otso batek eta onek bere koba-zulora eroan ebazan eta bere umeakaz batera azi.

Oraindiño lau-oñian ebiltzala aurkitu ebazan Alba'ko erregearen artzain zan Paustolo'k eta bere soingaiñekoan batuta bere etxera eroan eta antxe azi ebazan.

Ogei urtera eldu ziranean, mutil sendo eta ausartak ziran biak eta zeozer egiteko ustez urten eben aita-ordearen etxetik eta Tiber ibaiaren ertzean erri bat sortzea erabagi eben eta asi ziran lanean. Lana aurreratuta eukenean eztabaideak urten eban bien artean erri barri orreri zein izen ipiñi.

Bakoitxak bere izena ezarri nai eutson eta azkenean burrukea egin eben bien artean eta Remus'ek bizia galdu eban bere anaiaren eskuetan. Romulus'ek erriari "Roma" izena ipiñi eutson, ez Romulus eta ez Remus.

Erria bizilagunez bete nai eban ainbat lasterren eta etozan guztiak artzen ebazan, gizailtzailleak naiz iges egindako morroiak.

Ederto osotu eban erria Romulus'ek baiña emakume gitxiegi eukan eta orduan baimena emon eutsen gizonzko erritarrai albo-errietako neskatillak arrapau eta ekarteko eta orrelan egin eben.

Ostutako alaben billa joan ziran Erroma erribarri orretara asarre Saindarrak. Ordurako bat eginda egozan Erroma'ko lapurrak eta emazte sabindarrak. Eta guztiai eskatzen eutsen bakeak egin eta alkartuta aberri aundi bat sortzeko.

Orrelan egin zan eta Romulus izan eben errege ogeta amasei urtean Urrengo Romulus'eri billa etorri jakon Marte jainkoa bere aita eta zaldi-burdian artu eta Olimpo'ra eroan eban. Romulus'eri irudia ipiñi eutsoen erriko panteoi nagusian eta sortuta geratu zan aberri indartsu bat.

OLAZAR'tar Martin'ek

EUSKALERRI'REN EGIA: I.- ABERRI LEZ SORTZEN

Idaz-lan au, zazpi zortzi idazkitan argitu gura neuke, gaurko Mundua'ren gizartearentzat eta Euskalerrarentzat batez-be ardua aundiakoa dalako eta nire ardurazko ikuspegitik alan ulertzen dotelako.

Gauza arrigarri'bat sortzen jaku gaur, gaiñera gaurkoa ez dana, K.a. 8.000 milla urte gitxi gora beran asmatutakoak diralako, adibidez: Sumeria'n Sargon'ek zeaztu ezin diran Kristaurreko 2.600-2.300 urte inguruetan Beko-Mesopotamia'tik Eufrates'eraiño menperatzen alegindu zanetik asi eta K.a. 561'ean Ziro (Ciro) Persia'rarak Ekialdeko Turkia, Mesopotamia ta India menperatuta, Kanbises, Dario ta Jerjes'ek K.a. 521-486 urtetan Ejipto ta Mendebaleko-Asia guztia menperatu ondoren, Europa-be menperatu gura ebenetik, egoera bardiñean gagozelako.

Emen baiña, Europa'k euki eban demokrazia'ren jendekuntzazko bietariko (Euskalerrria eta Grezia) batek urten eutsoen aurka eta Medikak deritxen guda'kin, euki ebezan menperatzailetasunezko asmoak moztu eutsoezan.

Merkantilismu'aren diru-zalekeriak aleginduta baiña, agindukeria, indarraren bearrezkoan agertzen da eta Seneka'k esaten eban lez: Mundu onetan “Beartsua edo txirotasuna ez dala agertzen, gauza gitxigaz edo zeatz, bear doguzan gauzakaz bakarrik konpontzen garanean” “Andikeri-naian, gauza geiago eukiteko irrikatzen (ambicionar) gagozanean baiña”.

Eta Mundu fisiko onetan, asko ikasitako azturan edo zeaztasunezko alegiñaren ikas-bidetik oartuta, badakigu: “Leku batetik geiegi kendu ezkerro, leku ori gabetasunean geratzen dala”, nai lur, gauza edo giza ta gizarteko egin-kuntzan bardin sortuta.

Mundu onetako LEGEA ez dalako gurea, gure-artean konpontzeko baizik!! JAUNGOIKOA'ren LEGEA'k or!! emoten dautsolako asiera gizartearen eskubideai.

Zer gertatu zan baiña?

Ekialdetik etorten zan Norberkeriaren andi-zaletasunezko aberastasun asmo orrei edo eta moral-gabeko amets'abarreri (sueños-confusos) oratuta, Italia'n, Arno ta Tiber ibaieko bitartean bizi ziran Etruskoak emon eutsela barriro asiera, Europa ta Mundua menperatzeko, erromatar menperatzailetasunezko asmakuntzari.

GAURKO JAKINTSUA..... ZER ESATEN DABE EUROPA'ren BIZITZAZ'ko ASIERA'ri BEGIRA?:

Orain 30.000 urte ingurutik, Homo-Sapiens, Kromaño edo EUSKALDUN leiñuak, lur geiagoren edo babes'eko janariaren billa Afrika'tik urten da, Lurrarteko-Itsasoa'ren ingurua, Atlant-Itsaso'tik India'arteraiño lurrak erritu egin ebezala eta Europa'ren Mendebal da Ekialde guztiko izoztea urtzen asi zanetik, landara'ren fruitu, mamut ta bas-auntz edo izotz-oreiña'ren atzetik Europa ta Mundu guztian zabaldu zirala.

Europa'ren Giza-genetikan % 77'an bardiñak garala eta Europa'ren leenengo izkuntza EUSKERA dala. Leenengo izkuntzaren toki-izenak nai-ta jendekuntz-menperatzaileak euren izkuntzazko aztarnak itzi, milla urte askotan Euskeraz izaneko toki izenak guztiz sekula ez zirala aienatu edo ezeztatu eta orregaitik geratzen dirala Afrika'n, Europa ta Asian ainbeste Euskerazko toki-izen ta izkuntz-ezberdiñetan Euskeraren itz-ugari.

EGITAMU-SAIO ONEN AZTER-BIDEA:

Gaur, jakintzazko iker-lanaren bidetik, oneik diralako daukaguzan aurreko-zeaztasunak, zabalkuntz-agiri onen gaiñean aztertuko dodaz al doten mailla audiene-an, gero Europa ta Euskalerrriaren bizitzak aztertzeko, agertuko diran arlo ezberdiñak: “Izkuntzan eta erromatarren-gandik izkuntz-barriak sortuta agertu ziran ondorioak. Oituzko-izatasunean, erlijioan, edestian, askatasunezko-demokrazian. Eta ondorio-lez, Euskalerrrian gaur daukagun Askatasunezko arazoetan”. Aztu-gabe, oraiñarteko edestilariak menperatzailetasun zerbitzura egin dabezan adierazpenak, guztiz diru-griñaz edo bizitzeko diruaren gogoz egindakoak dirala, kaizertza eta katolikotasunezko erromatar kaizertzak, alan beartzen ebalako? Ori da batzuk daukien aitzakia, baiña... eta besteak?

EUROPA ta MUNDU ONEN LATERRI-GEOGRAFIKOA ZELAN GERATU ZAN ANTOLATUTA HOMO-SAPIENS edo KROMAÑON'en ZABALKUNTZAN?:

Leiñu-giza'k zabaldu eta euren babesak errezagoko egiteko banatzen asi ziranetik gaur arte eta Euskalerrria eredu-lez artuta, ezagutzen zan Europa ta Mundu guzti-au: “Bakotxa beren nortasunezko izen ta ardurakaz, leiñuzko bakantasanaren auzotasunean, laterrituta” geratu ziran.

Arreman aundiak euki bear ebezan milla urte askotan, Euskera'ren izkuntz-zarrak alan erakusten daualako, adibidez: “Eskoziaren goi aldeko Kaledonian, Piktoak bizi ziran eta aurkitu diran, eurak egindako arri-landuetan idatzitako izki'ak, euskerazkoak dira.

Adibidez, Pikto'z idatzitakoak: “doannataenakotekae-tua” eta beren irakur agiria: “doana da Eneko t'ekaitsua”. Gazteleraz irakurrita: “el que se va es Eneko y la preocupaciòn”. Krutwig'ek Euskera-lez onartuta eta Nuñez eta Astrain'tar Luis'en “EL EUSKERA ARKAIKO” liburutik artua.

Pikto'ak IX'n gizaldian Eskozez-Keltiarraz bat egin ziran.

**ATUTXA'tar PAUL
ZORNOTZA'n 2.008'an EPAILLA'ren 12'an**

SALOU'RA INSERSO'REKIN



Txangolariak pozik alkartuta.

TARRAGONA: Katalunia'ko eskualde edo erri-alde bat da, 6.283 Kilometru karratuak daukazena eta 484.600 bizi-lagun gitxi gora-bera.

Bartzelona, Lerida, Zalduba (Zaragoza), Teruel, Kastellon eta Lurrarteko itsasoak mugatuta dago. Berago, Ebro-Ibaia'k, Tortosa'ko-Kap'eko ibai-ondo'tik itsasora bota- ten dauz bere urak.

Beren ortuak: Ugolo edo irris'a (arroz), maats, olio-arana, urretxa, amanda edo arbendol'a (almendra) eta ale, zitu edo ugar-ale (fruta) ugari emoten dauz. Bai uste dot zitu, bii edo aleen (cereal) soloak-be ikusi nebazala. Beren alde-bi onenak Penedes eta Priorato'lurrak dirala.

Lantegi'en artean: Eungintza edo oialkintza (industria textil), papergintza (industria papelera) eta nekazaritzazko mozkiñ'en aldakuntza'renak (transformación de productos agrícolas) dira aipagarrienak.

EDESTIA: Euskaldunak izan ziran Erromatarren aurretik Anibal kartagotarrari gudu-erromatarrek zigortzeko lagundu eutsoenak.

Erromatarrek K.a. 218'an, Kartagotarrak ezereztuteko alegiñean, Geneo ta Publio Kornelio Eszipion anaiak bialdu ebezan eta euren neguko gualtegia bertan ezarrita, aurrerantzean "Tarrako" izenagaz ezagutuko zan (Tarrakonense edo Hispania Citerior).

Gauza ederrak daukaz andik ona Erromatarren ur-bidetik asita, Erromatarrek luzaro, ia euren amaierarte egon zirako.

Mauritarrak-be egon ziran gauza ederrak eginda, baiña guda-sarraskien bitartez Gotzai-Eleizan dagoen Mauritar-Dorrea bakarrik geratzen da.

III'n Berenger'tar Ramon Bartzelona'ko kondeak berrezkuratu eban euren eskuetatik.

SALOU: Tarragona'ko eskualde edo lurraldea da Kanbrils eta Port-Abentura erdian itsasoan sartzen dan

Salou lur-mutur ori Billaseka'ko Udalean, ugustegi-tokia dana (estación balnearia) eta ondartza ederragaz udatiar'en egurasketarako.

Erria, izparter edo itsas-bazter'en luzera guztian eginda dago eta lerro bizkiz marraztuta egon bazan antzera, kaleak gorantz galgan (paralelas) zabaltzen dirala.

Neguan, bertan eginda dagozan ainbeste etxeentzat ez dago bizi-lagun asko, taxi-zai baten esanetan 22.000 eskas diralako. Udaldean 400.000'tik gora izaten dira.

Ostatu, taxi eta abar guztien serbitzurako, Mundu onek daukazan abenda guztietako atzerritarrak daukazela esango neuke. Ego-amerikarrak dira nik geien ikusi dodazenenak.

Salou, toki polita da eta ederra egurasketarako.



Bartzelona'ko sendi deuna gotzain-eleizea (Gaudi).

INSERSO'REKIN SALOU'RA

Nire emazte Lourdes'ek egin ebazan "Mundosenior"ek antolatzen ebazan igaropide onen konpon guztiak. 2.008'ko Jorrailla'ren 14'tik 21'erarte izango zan.

14'ko Asteleena: 7'retan jagi giñan eta 8'rak ta laurenarako gure suin Mintegi'tar Mikel itxaroten euki gendun, Indautxu'n dagon gurdi edo berebil-busez urten eta amaieraren geltokira (termi-bus) eroateko.

Bertan, gure adiskide aundiak gaur diranakaz: Azurmendi ta Muguruza'tar Jose Manuel eta bere emazte Irasuegi'ta Ania'tar M^a Anjeles'ekin alkartu giñan. Eta eguraldia lainñutsua izan arren, pozik igon gendun berebil-bus'era 10'k eta iru minututan urteteko.

Bidaia, iru geraldietan osotu gendun, lenengoa amai-katerdietan, Logroñora orduko dagon "MEDAS" jate-txean. Ordu erdiko epean, anak luzatu, zeozer artu eta barruan geikerian euki genduzan urak bota ta eguerdiko amabietan urteteko.

Bigarrena: Sobradie'eko Utebo'n, zelaikada aundia daukan "ARS" jatetxean geratu gintzazan ordu bateko epean bazkaltzeko eta egin bear genduzan gauzak egiteko.

Emendik aurrera eta lur-landuak leiotik ikusten goazela, arrituta geratu nintzan mats-ondoan adarrak orritz beterik egon zirala eta geiago itsas-bazterrerantza urbiltzen goazela. Lur aretan agertzen jakuzan ori-urdiñeko margoak, ederrak ziran, nai-ta geienak ur-tantako ureztaldian egon. Benetako lur aberatsak dira orreik.

Irugarren geraldian eta arratsaldeko sei'rak zirala, Salou'n zortzi egunetan gure etxea izango zan ostatu Kalipso'ra eldu giñan.

Berebil-bus'etik jatsi edo beratuta eta pardel edo bidezorroak artuta, artzen genduezan maira (mostrador) joan giñan eta gela'ko giltzak artuta gora igon gendun soñneko jantziak euren lekuetan tzukun ipinteko eta garbituta gero, M^a Anjeles eta Jose Manuel'eri deituta, zortzi'retan afaltzera joan giñan.

Esan bear dot, garbitasun aundikoa izan zala ostatua eta gugaz euki eben ardurea, aundia izan zala, oso pozik igaro genduzan egunak.

Afal-ostean, laurok ostatuaren erri-inguruak ikustera joan giñan eta nekatu gintzazanean ostatua'ren bidea artu gendun. Jose Manuel eta ni 10-15m. andraren aurretik joan gintzazala, orma baten gaiñeko arbaztatik (ramaje) gazte bat abarrots naikoa atarata Lourdes nire emazteari indarkerizko tiraldi bategaz katanarru edo lepotik eroan eban sakela kendu eutson, euki eben diru, betaurreko, urrutizkin-aldakorra, argibideak (documentaciòn) eta euki eban gauza guztiakaz.

Danok joan giñan bere atzetik, baiña alperrik zan, eta Errebeskeria gogorra izan arren, niri barreak urten eustan M^a Anjeles beren irurogeita amabi urtekin bere atzetik korrika ikusi nebanean, lapurraren batera urten ba-eban lez, ziur nagolako lapur-arek ez ebala eukingo igesbiderik.

Lapurra sartu zan kaletik joan gintzazan eta erbesteko dendari batzuri itanduta, eurak lagundu euskuen urrutizkin-aldakorragaz erri-zaiñari (guardia civil) deituta lapurketa ori salatzeke eta berandu zan lez, urrengo egunean joateko esan euskun.

Ostatura joan gintzazanean Jose Manuel'en urrutizkin-aldakorragaz etxera deitu gendun, gure alabak M^a Lurdes eta Maite arduratu daitezcan BBK'ra deituta diru-txartelak ezereztu dagiazan lapurraren aukerak murrizteke eta guri dirua bialtzeke.

Jose Manuel eta M^a Anjeles'ekin akaita artuta ogera joan giñan.

15'ko Asteartea: 7'retan itzartu giñan eta leiotik egun argitsua euki gendula ikusi ondoren 8 1/2'etan gosaltzera beratu edo jatsi gin-



Monserrat'eko ume abeslariak.

tzazan. M^a Anjeles eta Jose Manuel'ekin atzoko irudi gaiztoak, gosalduz batera gogoratzeko.

Ostera geletara igon gendun 9 1/2'etan gidariaren adierazpenak entzutera joan bear gendulako eta bide batez, berak aste barrurako egin euskuzan bidai-eskeintzetatik, guk gura genduzan txartelak, Jose Manuel eta M^a Anjeles'ek aurreratutako diruakaz, artzeko.

Gero, errizain edo guardia-zibillen etxera joan giñan lapurketa salatzeke eta bertan iru-ordu bete genduzan, zeaztasunak salakuntzazko-agirian ezartzeko. Gaur, ezin lei siñistu oneik daukien arri-aroko trebetasuna.

Bostak arte lo-kuluzka apur-bat eginda urten gendun laurok bidai-etxera joateko eta arratsaldeetan ez eben-lez kale-jenderik artzen, erria-ikustera joan giñan.

16'ko Aste-azken edo Eguastena: 7'retan jagi, gosalduta eta 8'retan gurdi edo berebil-bus'era igon gendun, Bartzelona'ko berebil-bidea (autopista) artuta, eskualde edo lurralde orreitan dagon Montserrat'eko mendi-katean eginda dagoan lekaideetxera joateko.

Mendi-kate zorrotz orren gorengo neurria 1.224 metrokoa. da eta bere erdi inguruan 723 m. neurrian aintuzen Montserrat-lekaide etxea dago bere anditasun edo ospetan, Bartzelona'ren Ipar-Mendebal'eruntz 30 Km. inguru.

1.025'ean eraiki eban Oliba Abate edo Apaiz-buruak eta XIII gizalditik aurrera erromes'en bidezkundea da. Bertan egon zan ostatz Loiola'ko Iñazio-Deuna be.

“La Moreneta” esaten dautsoe Montserat'eko Ama-Birjiña'ren irudi txikerrari, argizagi'ekaz (velas) eta ezko lodi edo argizai'aren (cirios) aldi'ko keekaz baltzitura dagoelako.

Montserrat'era (berba onen itzulpena: “Mendi-zerratua” da, zerra'ren antzean ebagita dagoalako). Aridun gurdian (funicular) igon gendun eta 10'1/2'etan bertan egon giñan.

Dauan tokian eginda dagon Eleiz, jatetxe ugari eta gurdien-goroizkiko bilduma ori arrigarrian eginda dalako, txundituta ikusi gendun dana eta ainbat argazki kanpoan eta Eleiz-barruan atera genduzan.

Gu eldu giñanean, lekaide baten eortzetak edo il-otoizketak (funeral) egon ziran eta kanpoan itxaron gendun



Monserrak edo “MENSI EBAGIA” lekaide-etxea.

arek eta amaitu arte. Eta ordu batetan abes-mutilla'ren abesti politak entzun genduzan.

Arritzekoa-be izan zan, andik gora % 75'eko aldapan igon eta beratu eten barik goroizkikoak egiten ebana, bildurra emotekoa dalako.

Orregaitik Stxiller'ek esan eban: “Montserrat'ek gizona, kanpoko izatasunetik, bere barruko izatasunera ekartzen ebala”. Eta Goethe'k bere zartzaroen: “Gizonak, iñun ez dauela aurkituko bere zorientasunik, Montserrat'en ezin ezik”. Himler'ek lekaideai: “Negocios de èsta clase hemos suprimido en Alemania”.

Santutegi onen arpegi edo aurre-aldea, Gaudi'ren aurrekoa izan zan, De Paula ta Bidal'tar Franzisko'k egin eben, bai-ta Pamili-Sakratua'ren Gotzai-Eleiza'rena be asi.

Ango bazkal-etxe batera bazkaltzen joanda, euken antolakuntzazko serbitzu berezi bateri esker, bereala bazkaldu gendun.

2'1/2'etan berebil-bus'era igon gendun eta 3'1/2'etan San Sadurni de Noia'ra eldu giñanean, Kodorniu leize-zuloak ikustera eroan ginduezan.

Arritzekoa da an ikusi genduna, bere bost-solairu'aren 27 m. Sakontasunean daukazan ardan-gelak, luzeran ipini ezker 30 Km. eukiko leukezalako.

Beste izen batzuen artean EUSKADI'rena be ikusi gendun. Eta goitik daukena ederra ba-da, lur azpian daukena arritzekoa da.

Edan-ontzi poli baten ardo-atsegingarri bat edanda berebil-bus'era igon gendun eta 6'1/2'etan eldu giñan Kalipso ostatura.

17'ko Eguena: Gure kontura artu gendun egun au eta Kanbrils'era joan giñan. Andrak dendari ibili ziran bitartean

KATALUÑA

Jose Manuel eta ni portu edo kai-aldetik ibili giñan ango edertasunak ikusten.

M^a Anjeles eta Lourdes agertu ziranean, gure txantxetako irri ekin edaritegi batera joan giñan eta ozpiñean erre-egosita egon ziran antxoak edo bokartak, ardazuri on-baten laguntzagaz jan-edanda berebil-bus'ean ostatuko bidea artu gendun bazkaltzera joateko.

Arratsaldeko 4'1/2'etan ostatu aurrean geratzen zan "TSCHU-TSCHU" (Germaia) artuta, umeentzako dan "Portabentura"ren piztitegi eta jolas-leku'ra joan giñan.

7'retan itxi egiten zalako eta sarrerak garestiak ziralak (33'50 euro), ostera "TSCHU-TSCHU" orreitan jostari Salou'ra joan giñan.



Guztio'ko eleiz-aurreak.

18'ko Barikua: Euritsu agertu jakun bariku agun au eta 9'rak lauren gitxiagotan berebil-bus'era igonda Bartzelona'ko bidea artu gendun.

Bidean geldi-aldi bat eginda, 11'etan eldu giñan Gurutz-Santu eta Eulalia Santua'ren Gotzai-Eleiz nagusira.

Txango-zaleen gidariagaz, erromatarrek egin ebezan ormak ta dorrea, erregearen enparantza edo zabalgunen'aren zarrerizko etxe-sail erromatar-gotikoan ta pizkunde'ko berri-zalean (moderno renacentismo) eginda dauana, bertan dauan Aragoi'ko agiritegien etxea eta Bartzelona'ko kale nagusietatik ibilita, gaiñgaiñekoa dan Pamili-Sakratu miresgarria ikustera joan giñan.

Argazki pillo-bat atarata, "Los Portxos" (Porchos) jate-etxera joan giñan bazkaltzera.

Bazkari guztietako "Oillaskoa izar nagusi zala" naiko ondo jan gendun eta ortik "Pueblo Español" ikustera joan giñan.

Erri au, gaztela'tar usaiñean eginda dago eta erregea orduko denboran bertan egon zalako, Kolon'tar kristobalbe bertara joan zan, Ameriketatik, bertan jaiotako ekarri ebazan leenengo semeak bataiatzeko. Zer!! egingo eben JAINKOA'ren seme aiek, gero agertu jakien'akaz, gaur Nortasunean emoten daben irudizko itxuran agertzeko.

Monjuit-be ikusi gendun eta ondoren 7'rak ta 5 minutu ziranean Kalipso osta-etxean egon giñan.

19'ko Larunbata: Geroago egun ona egin arren, esnarazi giñanean egun euritsua agertu jakun eta gure kontura artuta kanbrils'era joan giñan, andrak ezer esan barik, eguenean ikusi ebazan gauzak eroatera joan-gurean ibili ziran eta ugazabak agintzen dauan lekuan mariñelak

batela lotu egiten dauan lez, gu kai-ondotik ibilaldira eta neskak dendari zirala emon gendun goiza.

Arratsaldeko 6'1/2'etan San Jorje eleiz-parrokira joan giñan mezea entzutera eta ondoren akaitegi batera eta an emon gendun ordu biko denborea alaitasunez.

20'eko Domekea: Egun euritsua agertu jakun au be, baiña guretzat ez eban ardura aundirik euki, arratsalderako aterri ta argitsu egiten ebalako.

Udal-etxera joan giñan ia udalzaiñak Lourdes'en gauzarik aurkitu ba-ebezan, baiña alperrik izan zan eta erritik txangolari ibili giñan.

Arratsaldean "TSCHU-TSCHU"an ibili giñan eta ostean ondartzako akaitegi baten, denborea alai emon gendun.



Emen esan bear dana, illuntze guztietan karta-jokoan ibiltzen giñela afal-oste guztietan eta Jose Manuel'ek eta nik irabazi arren, ordainketak guk egiten gendun beti.

21'eko Astelena: Etxeratzeko eguna. Ariñagoko astelenean lez apaindu gintzazan eta Bilbao'ko berebil-bus geralekura, arratsaldeko seiretan elduta, M^a Anjeles eta Jose Manuel besarkatu ta agurtu ginduezan, ez dala izango, gu laurok txangolari alango osteratan egiten dogun azkeneko bide-aldia itxaropenez.

Ondorioa: Gaztetu egiten garalako, bearrezkoak dira gure adiñetan noz-beiñ, alango arnasak artzea. Geiago, nai-ta batzuetan alango biurkeriak agertu, benetako lagunak txangolari, poz pozik egurasteko diralako ibilbide barri orreik.

**ATUTXA'tar PAUL
2.008'an Jorrailla'ren 28'an**

EUSKALDUN BARRIENTZAT



BBK

EUSKERAZALEAK

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 euro)

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilerro,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es

bbk²